



GAI-ZERRENDAKO LEHENBIZIKO PUNTUA

Kontseilari ahaldun karguan berrestea, kooptazioz eta bozketa bidez, Javier Fernández Alonso jauna.

ERABAKIA

Erabaki da berrestea, kontseilari-kargurako, Javier Fernández Alonso jaunaren izendapena, zeina Administrazio Kontseilua kooptazioz egin baitzuen 2015ekio irailaren 30eko bileran, eta, estatutuen arabera, lau urterako izendatzea kanpoko kontseilari ahaldun, Izendapen eta Ordainketen Batzordearen txosnari jarraikiz, Euskaltel SAko akziodun esanguratsu den Corporación Financiera Alba SAK proposatu baitzien haren izendapena.



GAI-ZERRENDAKO BIGARREN PUNTUA

R Cable y Comunicaciones Galicia SAren erosкета baimentzea ("Operazioa, aurrerantzean), Kapital Sozietateei buruzko Legearen 160 (f) artikuluari jarraikiz.

ERABAKIA

Kapital Sozietateei buruzko Legearen 160 (f) artikulua agintzen duenari jarraikiz, baimendu egin da Euskaltelek R Cable y Telecomunicaciones Galicia SA sozietatearen negozioaren % 100 erostea ("R" edo "R Cable", aurrerantzean), Administrazio Kontseiluaren txosteneko baldintzen eta terminoen arabera, R-ren kapital sozialaren % 100 erosiz, zuzenean edo zeharka, honela: (i) Abanca Corporación Industrial y Empresarial SLUren jabe den R-ren kapital sozialaren akzioen % 30 erosiz; eta (ii) R-ren akziodun nagusi eta haren kapital sozialaren % 70aren titular den Rede Brigantium SLren kapitalaren sozietate-partaidetza guztiak erosiz. Venini Netherlands B.V.ren eta Ninive International B.V.ren jabetzakoa da Rede Brigantium SL. ("Operazioa").

Onespen horrek berekin dakar, bestalde, Operazioa behar bezala burutzeko behar diren negozio juridiko gehigarri edo lotuen onespena ere; besteak beste, lehendik dagoen banku bidez finantzioazio-lerroa handitzea, zor instituzionalaren kontratazioa eta akzio berrien jaulkipena, guztiak ere Administrazio Kontseiluaren txostenean aipatzen direnak.

Operazio horrek funtsezko aktibo bat jartzen du Sozietatearen esku, lanean diharduen estatuko iparraldeko ingurune geografikoetan eskaintza bateratuetan operadore nagusia izango baita.

Erabaki da, halaber, behar adina eskumen ematea Sozietateko Administrazio Kontseiluari Operazioa gauzatu eta burutzeko, zuzenbideak baimentzen duen hedaduraz, bere partaideetako edozein ordezteko edo ahalduzteko baimenaz, ahalmen hauek ere barne direla: behar diren agiri publiko edo pribatu guztiak eskuratzekoa, legeak agintzen dituen iragarkiak argitaratzekoa, nolanhikoak direla ere; dagozkion erregistroetan erregistratzekoa eta horretarako behar diren egintza eta izapide guztiak egitekoa.



GAI-ZERRENDAKO HIRUGARREN PUNTUA

Baimena ematea Administrazio Kontseiluari, Kapital Sozietateei buruzko Legearen 297.1.b) artikuluan xedatutakoari jarraikiz, egungo kapital sozialaren erdiraino handitu dezan, egoki irudituz gero, kapital soziala, bost urteko epean gehienez ere, behin eta hainbat alditan, egoki deritzen zenbatekoan eta unean, eta ahalordetzea egitean kapitalaren % 20ko mugadun lehentasunezko erosketarik ez onartzeko ahalmena ere esleitzea, Estatu Sozialen 13. artikulua arabera. Administrazio Kontseiluari hainbat ahalordetza ematea, ordezkatzeko berariazko ahalmenaz; besteak beste, kapital soziala erregulatzen duen Estatutu Sozialen artikulua (6.a) berriz idaztekoa.

ERABAKIA

Erabaki da baimena ematea Sozietateko Administrazio Kontseiluari, Kapital Sozietateei buruzko Legearen 297.1.b) artikuluari jarraikiz, Batzar Orokorrari alde aurretik galdetu gabe kapital soziala handitzeko, erabaki hau hartu den egunean Sozietateak zeukan kapitalaren erdiaren baliokide den zifra bateraino. Erabaki hau hartzen den egunetik bost urte igaro aurretik balia dezake Administrazio Kontseiluak ahalmen hori, behin edo gehiagotan, kasu bakoitzean egoki deritzen modua, zenbatekoa eta baldintzak aplikatuz.

Honenbestez, kapital-handitzeen eta akzioen ezaugarrien baldintza eta termino guztiak ezar ditzake Administrazio Kontseiluak, eta zer inbertitzaile eta merkatutara bideratu handitzeak erabaki, eta zer prozedura erabili horretarako; halaber, lehentasunezko harpidetza-epean harpidetu gabeko akzio berriak libreki eskaini ditzake, baldin eta harpidetza osatzen ez bada, indarrrik gabe utz dezake kapital-handitzea, edo egindako harpidetza-kopuruaren arabera kapital-handitzea agindu.

Baimen honetaz baliatuz erabaki hauetako edozein betearazteko (bereziki, handitzearen amaiera zehazteko) pertsona edo pertsonak (kontseilariak izan edo ez) izenda ditzake Administrazio Kontseiluak.

Akzio berriak jaulkiz (arruntak edo botorik gabeak, pribilegiatuak edo erreskatagarriak) egin daite(z)ke kapital-handitzea(k), dagokion aldaketa eginda Estatutu Sozialen 6. artikuluan.

Akzio berrien kontrabalioa, berriz, sozietateko ondareari egiten zaizkion diru-ekarpenak izango dira, akzioen balio izendatua ordainduz eta, hala badagokio, jaulkipen-prima eta guzti. Desberdina izan daiteke prima hori jaulkipen bereko akzio-multzo desberdinetarako.

Halaber, legeak baimentzen badu, erabilera libreko erreserben eraldaketa izan daiteke kapital-handitzearen edo -handitzeen kontrabalioa; horrelakoetan, lehendik dauden akzioen balio izendatua handituz egin daite(z)ke kapital-handitzea(k), dagokion aldaketa eginda Estatutu Sozialen 6. artikuluan.

Kapital Sozietateei buruzko Legearen 506 artikuluari eta Estatutu Sozialen 13. artikuluari jarraikiz, berariazko baimena ematen zaio Administrazio Kontseiluari osorik edo partzialki kentzeko baimen honen arabera egitea erabakitzen duen zeinahi jaulkipenen lehentasunezko



harpidetza-eskubidea, kapitalaren % 20ko mugarekin ahalordetza hau egitean, baldin eta Sozietatearen interesak hala eskatzen badu eta bat baldin badator jaulki beharreko akzioen balio izendatua gehi jaulkipen-prima (hala badagokio) Administrazio Kontseiluak hala eskatuta Sozietatekoa ez den kontu-ikuskari batek egin behar duen txostenaren arabera arrazoizko balioarekin. Merkataritza Erregistroak izendatu behar du ikuskaria, paragrafo honetan aipatutako lehentasunezko harpidetza-eskubidea erabiltzeko baimena kentzeko ahalmena erabiltzen den bakoitzean.

Halaber, baimena ematen zaio Administrazio Kontseiluari negoziatzeko onartu edo baztertu ditzan, Espainiako edo atzerriko merkatu sekundario antolatuetan, jaulkitzen diren akzioak, edo, lehendik jaulkitakoen balio izendatua aldatzen bada, bazterrera utzi eta berriro onartu ditzan, kontratazioari eta negoziatzeko onespenerari edo onespenerik ezari aplikagarri zaizkion arauen arabera.

Kontseiluak egoki deritzen pertsonen esku (kontseilariak izan edo ez) utz dezake erabaki honetako zeinahi eskumen.



GAI-ZERRENDAKO LAUGARREN PUNTUA

KPMG Auditores, SL izendatzea Eragiketaren ostean Euskaltelek eta haren mendeko sozietateek osatzen duten talde bateratuaren 2015eko, 2016ko eta 2017ko urteko kontuen ikuskari.

ERABAKIA

2015eko abenduaren 31n itxiko den ekitaldian gauzatu dadin gai-zerrendako bigarren puntuan aurreikusten den Operazioa, eta Sozietateko talde bateratuaren urteko kontuak egiaztatzeko legezko obligazioa bete dadin, erabaki da KPMG Auditores SL izendatzea Operazioa amaitu ondoren Euskaltelek eta bere mendeko sozietateek osatzen duten talde bateratuaren kontu-ikuskari, hurrenez hurren 2015, 2016 eta 2017ko abenduaren 31n amaituko diren ekitaldietako urteko kontuen auditoretza egin dezan, eta baimena ematea Administrazio Kontseiluari (berariazko ordezkapen-ahalmena barne dela) zerbitzuak alokatzeko dagokion kontratua sina dezan, egoki deritzen klausulak eta baimenak txertatuz; baimena ematen zaio, halaber, egoki deritzen aldaketak egin ditzan kontratuan, une horretan indarrean den legediaren arabera.

Administrazio Kontseiluak hala proposatuta hartu da erabaki hori, zeina, aldez aurretik, Ikuskaritza eta Kontrol Batzordeak proposatu baitzuen.

KPMG Auditores SLk helbnide sozial hau du: Paseo de la Castellana, 95 - Torre Europa eraikina, 28046 PK, Madril; identifikazio fiskaleko zenbakia, berriz: B-82498650. Madrilgo Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago, 14.972 liburukian, 53 folioan, 8 atalean, M-249.480 orrian, eta Kontu Ikuskarien Erregistro Ofizialean (ROAC), S-0702 zenbakiaz.



GAI-ZERRENDAKO BOSGARREN PUNTUA

Ahalmenen eskuordetzea

ERABAKIA

Erabaki da, halaber, behar adina eskumen ematea Sozietateko Administrazio Kontseiluari Operazioa gauzatu eta burutzeko, zuzenbideak baimentzen duen hedaduraz, bere partaideetako edozein ordeztzeko edo ahalduztzeko baimenaz, ahalmen hauek ere barne direla: behar diren agiri publiko edo pribatu guztiak eskuratzekoa, legeak agintzen dituen iragarkiak argitaratzekoa, nolana hikoak direla ere; dagozkion erregistroetan erregistratzekoa eta horretarako behar diren egintza eta izapide guztiak egitekoa, lehendik erabakitako eskuordetzei kalterik eragin gabe betiere, eta, besteak beste, hartutako erabakiak zuzendu, argitu, interpretatu, osatu, zehaztu eta doitzekoa, hala badagokio, eta, bereziki, atzematen diren akatsak, erroreak edo ez-egiteak zuzentzekoa, bai eta Merkataritza Erregistroaren hitzezko edo idatzizko kalifikazioa atzemandakoak ere, hartutako erabakien eraginkortasunari kalterik eragin badiezaiokete.